

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

5435

AGINDUA, 2023ko azaroaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez udal-jabetzako eraikinetan, non hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden, obrak egiteko gastuak finantzatzeko deialdia iragartzen den (Udalaguntza-2023).

Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriak ezartzen du toki-korporazioek eta Hezkuntza Administrazioak lankidetzan jardun behar dutela ikastetxeak sortu, eraiki eta mantentzeko, betiere indarrean dagoen legediari jarraikiz.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 1. artikuluan jasotzen diren printzipioen artean aurreikusten da hezkuntza-administrazioen eta toki-korporazioen arteko lankidetzak, hezkuntza-politikaren plangintzan eta inplementazioan. Era berean, 8. artikulua 1. apartatuak ezartzen duenez, hezkuntza-administrazioek eta toki-korporazioek beren jardunak koordinatuko dituzte (bakoitzak bere eskumenen eremuan), hezkuntzarako baliabideen eraginkortasun handiagoa lortzeko eta lege horretan ezarritako helburuak lortzen laguntzeko.

Lankidetzak horri esker, lehenik zeuden baliabide publikoak optimizatu ahal izan dira, bai eta Administrazioak egindako ahalegin eta jarduerari ahalik eta etekin handiena atera ere.

Beraz, Hezkuntza Sailak komenigarritzat jotzen du udalen jabetzako zentroetan obrak egiteko jarduerak sustatzea, horrela hezkuntza hobetzen lagunduko baitu.

Eta oinarri gisa hartu da Ogasun eta Herri Administrazioari buruzko otsailaren 26ko Aginduan xedatutakoa, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren konfiantza emandako gastu-espeditenteak aurrez izapidetzeko modua arautzen baita.

Hori dela eta,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da udal-jabetzako eraikinetan, non Hezkuntza Administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden, obrak egiteko gastuak finantzatzeko deialdia iragartzea (Udalaguntza-2023).

2.– Agindu honen ondorioetarako, obra hauek finantzatu ahal izango dira:

a) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 232. artikuluan jasotakoak (haren bidez Espainiako ordenamendu juridikora eramaten baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak), lehen ezarpeneko, kontserbazioko eta mantentze-lanetako obrak izan ezik.

b) Otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretua betetzea helburua dutenak; errege-dekretu horren bidez ezartzen dira Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntza ematen duten zentroen gutxieneko baldintzak.

c) Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea betetzea helburu dutenak, eta baita 173/2010 Errege Dekretua ere, otsailaren 19koa, Eraikingintzaren Kode Teknikoa aldatzen duena, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartuta, desgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasunari eta ez-diskriminazioari dagokionez.

d) Ikasgelak sortzea edo eraberritzea jasotzen dituztenak.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 19. artikulua 2. puntua betetzea helburu dutenak.

3.– Ezin izango dute deialdi honetan parte hartu jada onartutako laguntza duten obrek, epearen barruan uko egin ez zaielako, Hezkuntza Sailaren Udalaguntzaren azken hamar urteetako deialdiari dagokionez, salbu eta Udalak gerora eta modu justifikatuan uko egin badio eta zenbatekoa itzuli badu.

4.– Obrak 2023ko urtarrilaren 1aren eta 2024ko abuztuaren 31ren artean hasiko dira, eta 2024ko abenduaren 31 baino lehen amaituko dira.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak amaitzeko epea luzatu ahal izango du horretarako egindako ebazpen bidez –inola ere ez bi hilabete baino gehiago–, lanak luzatzea justifikatzen duten arrazoiak daudenean, eta udal onuradunak amaiera-data baino lehenago eskatuz gero.

2. artikulua.– Kreditu erabilgarria.

Agindu honen xede diren dirulaguntzetarako hamar milioi (10.000.000,00) euro bideratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-izendapenaren kontura.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Deialdi honen onuradun izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko udalak, baldin eta udal-jabetzako eraikinetan, non Hezkuntza Administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden, obra-proposamenak aurkezten badituzte, betiere, obrak 1. artikuluan jasotakoak badira.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa.

1.– Balorazio-batzordeak onartutako aurrekontuaren % 60 ordainduko du Hezkuntza Sailak.

2.– Eskaera bakoitzeko ematen den zenbatekoa ezingo da 360.000 euro baino handiagoa izan; hortaz, balorazio-batzordeak onartutako 600.000 euro baino gehiagoko aurrekontuak dituzten eskaerei dirulaguntza ematen bazaie, muga hori hartuko da kontuan.

3.– Obraren aurrekontuan ez dira sartuko proiektua idazteko, obra zuzentzeko eta obraren segurtasun eta osasun arloak koordinatzeko ordainsariak.

Halaber, ezin izango da obraren aurrekontuan sartu udalaren plantillako beste edozein langilearen ordainsaririk.

5. artikulua.– Erakunde eskatzaileek bete beharreko baldintzak.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan ezartzen direnez gain, hauek izango dira dirulaguntza eskuratzeko betebeharrak:

a) Obrak egiteko dirulaguntzaren eraikin-hartzailearen jabea izatea.

b) Ez izatea dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko debekurik zigor- eta administrazio-arloan, eta ez izatea horretarako aukera kentzen duen legezko debekurik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrenaren arabera sexu-diskriminazioa egin izanagatiko lege-debekuak barne.

c) Erakunde eskatzaileek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak, zuzenbide publikokoak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta hori horrela dela egiaztatu beharko dute eskabidea egiteko unean, bai eta dirulaguntza emateko eta ordaintzeko unean ere.

6. artikulua.– Erakunde eskatzailearen betekizunak egiaztatzea.

Honela egiaztatuko da aurreko artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen direla:

a) Titulartasuna idazkariak emandako ziurtagiri bidez egiaztatuko da, korporazioaren inbentarioaren zerrendarekin.

b) Zehapena betetzen ez egoteko baldintza egiaztatzeko, erantzukizunpeko adierazpena erantsiko zaio eskabideari.

c) Zerga-betebeharrak, zuzenbide publikokoak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko, erantzukizunpeko adierazpena erantsiko zaio eskabideari.

7. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

Erakunde interesdunek baliabide elektronikoak erabiliko dituzte eskabideak bideratzeko, kontsultak egiteko eta prozedura honetako izapide guztiak egiteko.

Izapidetze elektronikoa araututa dago, batetik, Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan, eta, bestetik, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Plata– onartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenean.

Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak izapidetzeko argibideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan daude eskuragarri: www.euskadi.eus/servicios/0096613

Eskabidearen osteko izapideak, berriz, kanal elektronikoaren bitartez egingo dira, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

8. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Deialdi honetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Eskabideak modu elektronikoan aurkeztu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan: www.euskadi.eus/servicios/0096613

3.– Erakunde eskatzaileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta gainerako dokumentuak. Era berean, prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

4.– Ikastetxe baterako baino gehiagorako finantzaketa eskatu nahi duten udalek horietako bakoitzaren dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

5.– Ikastetxe bakarrean obra bat baino gehiago egin nahi bada, eskaera bat aurkeztu beharko da obrako.

6.– Eskabideak egitean, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Gauzatze-proiektua aurkeztu behar bada edo halakorik aurkeztu behar ez bada, bi obra-mota bereiziko dira, Eraikingintza arautzeko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 2. artikulua 2. puntuan xedatutakoaren arabera:

– Proiekturik behar ez duten obrak: teknikari eskudunak izenpetutako azalpen-memoria eta kontrataren aurrekontu orokor xehatua (BEZa barne). Obrak amaituta egonez gero, gauzatutako obren faktura edo amaiera-ziurtagiria aurkeztu ahal izango da.

– Proiektua behar duten obrak: gauzatze-proiektua, teknikari eskudunak izenpetua eta elkargo profesionalaren oniritzia. Obrak amaituta egonez gero, gauzatutako obren amaiera-ziurtagiria aurkeztu beharko da, diruz lagundu daitekeen zenbatekoa zehaztu ahal izateko.

Oinarritzko proiektua ere aurkeztu ahal izango da, teknikari eskudunak izenpeturik. Kasu horretan, teknikari eskudunak izenpetutako eta elkargo profesionalaren oniritzia duen gauzatze-proiektua aurkeztu beharko du eskatzaileak, ebazpena jakinarazi eta, gehienez ere, hilabeteko epean.

Proiektua idatzi duen arkitektoa udaleko langilea bada, salbuetsita geratuko da elkargoaren oniritziaren betebeharretik.

b) Agiri hauek kasu guztietan aurkeztu beharko dira:

– 6. artikuluan aipatutako agiriak.

– Udal-organo eskudunaren akordioa, zeinaren bitartez onartzen baita aurkeztutako proiektua edo aurrekontua.

– Obra bererako beste finantzaketa-iturri batzuei buruzko erantzukizunpeko adierazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren euskadi.eus egoitza elektronikoko inprimakiaren arabera betea, helbide honetan eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/servicios/0096612>

– «Datu-orria» izeneko inprimaki normalizatua. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa dago eskuragarri, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/servicios/0096612>

9. artikulua.– Eskabideak balioestea.

1.– Eskaeren azken aukeraketa balorazio-batzorde batek egingo du, eta kide hauek osatuko dute:

– Azpiegitura, Baliabide eta Teknologiaren zuzendaria lehendakaria izango da.

– Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria.

– Hezkuntzako lurralde-ordezkariek.

– Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia Zuzendaritzako teknikari bat arituko da idazkari-lanetan, eta ahotsa izango du, baina botorik ez.

2.– Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako unitate teknikoek jasotako eskabide guztiak balorazio-batzordera bidaliko dituzte dagozkien txostenekin batera, Zerbitzuko arduradunak eta lurralde-ordezkariek behar bezala zigilatuta eta sinatuta, non 1. artikularen arabera egin beharreko jardueren mota zehaztuko den. Txosten horietan, aurreikusitako jardueren urgentzia eta obren tipologia arrazoitu beharko da; hori guztia fitxa bakar eta bateratu batean jaso beharko da, jardueren eta presa mota hauen arabera:

Jarduketa-mota	Puntuazioa
1.– Egitura	16
2.– Estalkia	14
3.– Eraikinen energia-efizientzia hobetzea*	13
4.– Segurtasuna	12
5.– Irisgarritasuna	10
6.– Laneko arriskuen prebentzioa	8
7.– Kanpoko arotzeria	6
8.– Instalazioak	5
9.– Gelak	4
10.– Toki estaliak	3
11.– Jolas-eremuak sortzea edo hobetzea	2
12.– Bestelakoak	1

*Atal honetan, jardun hauek hartzen dira bakarrik: instalazio termikoak (biomasa, aerotermia eta/edo geotermia), argiztapen-sistemak, etxekeko ur beroa produzitzeko sistemak edo energia elektrikoa sortzeko iturri berriztagarrien bidez, kontsumoen monitorizazio- eta erregulazio-sistemak.

Presa maila	Puntuazioa
1.– Oso presazkoa	10
2.– Presazkoa	6
3.– Komenigarria	4
4.– Presarik gabekoa	2

Lurralde-ordezkaritzetako atal teknikoek emandako txosten horiek aztertuko ditu balorazio-batzordeak eta, lanak egiteko premia edo premiarik eza kontuan hartuta, «3» eta «26» puntu arteko puntuazioa jarriko dio obra bakoitzari, lehentasun-ordena ezartzeko.

3.– Deialdi honetarako aurreikusitako aurrekontuko diru-hornidura ez bada nahikoa aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko, balorazio-batzordeak lehentasun-ordena ezarriko du, 2. puntuko balorazioak aintzat hartuta, eta zerrendaren hasieratik hasi, eta ordena kontuan hartuta esleituko ditu laguntzak, 2. artikuluan jasotako aurrekontu-kreditua amaitu arte.

4.– Bi eskaerak edo gehiagok puntuazio bera lortzen badute, irizpide hauek erabiliko dira berdinketa hausteko, betiere zerrendatutako lehentasun-ordenaren arabera:

- 1) Gauzatu beharreko jardueraren presa-maila.

2) Deialdi honetan diruz lagundutako jarduera-kopuru txikiena.

3) Diruz laguntzeko jardueren kostu ekonomiko txikiena.

10. artikulua.– Bateragarritasuna.

Deialdi honen xede den finantzaketa bateragarria izango da beste edozein finantzaketa-iturriekin. Deialdi honen xede diren obrak hainbat administrazioek laguntzen badituzte diruz, eta laguntza guztien diru-kopuru osoa handiagoa bada lanen kostu osoa baino, agindu honen bidez emandako laguntzaren gehiegizko zenbatekoa murriztu egingo da.

11. artikulua.– Udalen betebeharrak.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezartzen direnez gain, agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradun diren udalek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Udalen ardura izango da proiektu osoa idaztea, obrak eta haien zuzendaritza fakultatiboa esleitzea, baita eraikuntzetako segurtasunari eta osasunari buruzko araudia betearaztea ere.

b) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hama-bost eguneko epean, erakunde onuradunek ez badiote berariaz uko egiten «Nire Karpeta» atalaren bitartez, dirulaguntza onartu dutela ulertuko da.

c) Dirulaguntza zertarako eman den, horretarako erabili beharko dute.

d) Deialdi honetan emandako dirulaguntzari dagokionez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak beren funtzioak betetzeko eskatzen duten informazio guztia bidaltzea.

e) Obra deskribatzen duen kartel bat jartzeko aukera ematea Hezkuntza Sailari. Erantsitako ereduaren arabera egingo da kartel hori, A3 formatuan inprimatuta.

f) Lanak egiteko laguntzak eskatu izana, eta, hala badagokio, lortu izana jakinaraztea.

12. artikulua.– Ebazpena.

1.– Balorazio Batzordeak ebazpen-proposamena helaraziko dio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, zeinak deialdiko prozedurari amaiera ematen dion ebazpena emango baitu, sei hilabeteko epean, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera. Ebazpen hori argitara emango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-oholean (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>), eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du jakinarazpen-balioa. Halaber, emandako dirulaguntzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, soilik informazio gisa.

2.– Zehaztutako epean berariazko ebazpenik ematen ez bada, ezetsizat joko dira eskaerak, hala agintzen baitute Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 25. artikuluek; hori horrela izanik ere, lege horren arabera, Administrazioak berariazko ebazpena egin beharko du.

3.– Erakunde onuradunei dirulaguntzak eta laguntzak emateko eta, hala behar denean, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea itzulketa- edo zehapen-prozedura oro; zehazki, EAEko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzengatik edo dirulaguntzengatik hasitakoak eta artean izapidetzen ari direnak.

4.– Deialdiko prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

13. artikulua.– Emandako laguntza ordaintzeko araubidea eta justifikatzeko betebeharra.

1.– Bi epetan ordainduko zaio dirulaguntza dagokion udalari:

a) % 15eko zenbatekoa, deialdia ebaztean, agindu honen 11.b) artikuluan adierazitako epea igaro eta gero, eta dirulaguntzari uko egin ez bazaio.

b) Gainerako % 85a, egindako inbertsioa justifikatu eta gero. Horretarako, agiri hauek aurkeztu beharko dira «Nire Karpeta» atalaren bidez (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>):

– Obrei dagokienez: Obra-zuzendaritzaren amaiera-egiaztagiria edo obra amaitutzat emateko udal-egiaztagiria. Dagokion zenbatekoa zehaztu beharko dute eta fakturak eta/edo behar diren justifikazio-agiriak erantsi.

– Helburu bererako lortutako beste finantzaketa-iturri batzuk jaso izanari edo jaso ez izanari buruzko adierazpena, agindu honen 10. artikuluan xedatzen den bezala. Beste iturri batzuetako dirua jaso baldin bada, kopurua adierazi beharko da. Adierazpen hori egiteko, beste finantzaketa-iturriei buruzko inprimakia bete beharko da. Aipatutako inprimakia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokoan dago esku-argarri, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2023/udalpatiolaguntza/web01-tramite/eu/>

2.– Finantzatutako obra amaitu eta, gehienez ere, hilabeteko epean aurkeztu beharko dira adierazitako justifikazio-agiriak, eta 2025eko urtarrilaren 31 baino lehen, betiere.

Justifikazio-agiriak modu elektronikokoan aurkeztu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire Karpeta» atalaren bitartez: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Halaber, agindu honen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, luzapena jaso duten obren kasuan, justifikazio-agiriak 2025eko martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira.

3.– Udalak aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, egiaztatzen bada kontzeptu guztiak batuta obren amaierako benetako kostua txikiagoa dela balorazio-batzordeak onartutako aurrekontua baino –zeinetan oinarrituta kalkulatu baitzen dirulaguntzaren zenbatekoa–, zenbatekoa aldatu egingo da amaierako benetako laguntzak ez dezan gainditu agindu honen 4. artikuluan adierazitako onartutako aurrekontuarekiko ehuneko.

14. artikulua.– Egiaztatzeak.

Hezkuntza Sailak beharrezkotzat jotzen dituen gainbegiratzeak, ikuskapenak eta egiaztatzeak egin ahal izango ditu, emandako finantzaketaren arauak eta baldintzak betetzen direla ziurtatzeko.

15. artikulua.– Ez-betetzeak.

Egiaztatzen bada finantzaketa emateko baldintzaren bat ez dela bete, Administrazio honek ohar-tarazpena bidaliko du alde zuzenetik, jasotako diru-kopuruak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzul dakizkion, arau hauek diotena betez: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko

1/1997 Legegintzako Dekretuaren 53.1 artikulua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua eta horren Erregelamendua; eta abenduaren 17ko 698/1991 Errege Dekretua.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetako dirulaguntzei buruzko ebazpena emateko garaian, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorretan, hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egindako gastu-espedienteen izapidetze aurreratua arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan araututa ez dauden prozedura guztietan, arau hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. titulua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako oinarritzko araudia, eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Araudia onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaioke interesdunek Hezkuntzako sailburuari; horretarako, hilabeteko epea dute, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 22a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

I. ERANSKINA

UDAL JABETZAKO ERAIKINETAN OBRAK EGITEKO GASTUAK FINANTZATZEKO
LAGUNTZA - ESKAERAREN ERANSKINA - «UDALAGUNTZA-2023»

Udalaren datuak

- Udala: _____
- Lurraldea: _____

Obraren datuak

- AURREKONTUA: _____
- EPE ESTIMATUA: _____
 - OBRA HASIERA: _____
 - OBRA BUKAERA: _____
- ZEIN IKASTETXERENTZAT eskatzen den laguntza: _____
- Egin beharreko obra: _____
- Obra honetarako beste laguntzarik eskatu/ eskuratu duzu?
BAI
EZ

Erantsi beharreko dokumentazioa:

- Eskabidea (obra bakoitzeko bana).
- Beste finantziario-iturri batzuk.
- Azalpen memoria.
- Kontrataren aurrekontu orokor xehatua (BEZa barne).
- Aurrekontuaren edo proiektuaren udal organoaren akordioa.
- Eraikinaren jabetza ziurtagiria idazkariak behar bezala emana izan beharko du.
- Proiektua behar duten obrentzat: burutzapen-proiektua, teknikari eskudunak izenpeturik eta elkargo profesionalak bisaturik.
- Zehapenik betetzen ari ez izatearen betebeharra erantzunkizunpeko adierazpenen bidez egiaztatuko da.

Data: _____

II. ERANSKINA

BESTE FINANTZIAZIO-ITURRI BATZUK

_____ jaun/andreak,
_____ Udaleko alkate edo idazkari
gisa, honako hau

ZIURTATZEN DU:

Udal Zerbitzu Teknikoek egindako txostenaren arabera:
Udal honek Udalguntza-2023 deialdiko dirulaguntzaz gain beste finantziazio-iturririk ez duela eskatu aipatzen diren obretarako.

- Ikastetxea:
- Obra:

Bete beste finantzazio-iturri batzuk eskatuz eta jasoz gero:
Udal honek Udalguntza-2023 deialdiko dirulaguntzaz gain honako finantziazio-iturri hau (hauek) eskatu eta jaso duela (dituela).

- Ikastetxea:
- Obra:
- Erakundea:
- Emandako diru-zenbatekoa:
- Eskatutako diru-zenbatekoa:

Eta, hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau sinatzen dut

_____ (e)n _____ (e)an
(Tokia) (Data)

(Sinadura)

III. ERANSKINA

ERAIKINAREN TITULARTASUNA

OBRAK EGITEKO DIRULAGUNTZA ESKATZEN DEN
ERAIKINAREN TITULARTASUN ZIURTAGIRIA

_____ jaun/andreak,
_____ ko Udaleko idazkari nagusia naizen aldetik,

HONAKO HAU ZIURTATZEN DUT:

_____ ko Udaleko ondasuneko
inbentarioan, besteak beste, honako hau agertzen dela:

Izena: _____

Kokapena: _____

Eta horrela jasota geratzeko eta beharrezko ondorioak izateko, ziurtapen hau egin dut,

_____ (e)n _____ (e)an

(sinadura)